

**VITORIA
GASTEIZ**
green capital



2018/19 IKASTURTEA
Herritartasunerako
Eskola Irekia

Laguntzailea

FUNDACIÓN *Vital* FUNDAZIOA



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

HEI. HERRITARTASUNERAKO ESKOLA IREKIA

EGIZU LAN GASTEIZEN ALDE

HEI (Herritartasunerako Eskola Irekia) topaketarako eta prestakuntzarako gune bat da, Gasteizko udalerrian bizi garen guztiontzat irekia dagoena, Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuaren barruan.

HEIk lagundu egin nahi digu gure partaidetza-kultura hobetzen, zein eremu eta arlotan parte har dezakegun ezagutzen; gero eta protagonistagoak izan gaitezen eta udalaren kudeaketa eta politikan gero eta motibazio eta prestakuntza handiagoarekin esku har dezagun, denon artean Gasteiz hiri demokratikoagoa, garde-nagoa eta zoriotsuagoa bihur dezagun.

Gasteizen zerbait hobetu daitekeela pentsatzen baduzu, orain duzu aukera ezin hobe, urrats hori egiteko.

HEI (Herritartasunerako Eskola Irekia-Escuela Abierta de la Ciudadanía) Hiri Hezitzaileak izeneko sariaren 2018ko edizioan mundu osoko 10 proiektu finalistetako bat da.



Elsa Punset

(Filosofoa eta dibulgatzailea, 2017/18 ikasturteko hizlaria)

“Denok dugu aldatzeko eta gure buruekin nahiz besteekin hobeto bizitzen ikasteko aukera.”



Bernardo Gutiérrez

(Kazetaria eta idazlea, 2017/18 ikasturteko hizlaria)

“Hormarik ez duen eta, beraz, irekia den eskola bat. Bertan, mundu guztiak ikasiko du zerbait, bai irakasleak eta bai ikasleak ere, eta ikaskuntzaren hesiak apurtuko dira.”



Rosa Ortiz de Mendibil

(Kazetaria, 2017/18 ikasturteko parte-hartzailea)

“HEI, Herritartasunerako Eskola Irekia aukera on bat da ikasteko, irakasteko eta modu aktiboan parte hartzeko.”



Aitor Buendía

(Kazetaria, 2017/18 ikasturteko parte-hartzailea)

“HEI Herritartasunerako Eskola Irekiak frogatu du Gasteizko herriak ekarpenak egiteko gaitasuna duela.”

HEI, 2018/19 IKASTURTEA

Herritarrek herritarrentzat sortutako programa bat da

2018/19 bigarren ikasturte honen egitarauaren prestakuntza **Talde Eragileak** egindako lanari zor diogu; talde eragile hori, hain zuzen ere, herritarrek eta udaleko teknikariek osatzen dute, eta bertan, 2017/18 ikasturtean barrena bildu diren eskaera eta premia desberdinei erantzuna eman nahi izan zaio.

Talde Eragilea beti partaide berriak hartzeko zabalik dago. Zu bezalako pertsonak osatua dago; zuk ere partaide izan nahi baduzu, Herritarren Parte-hartzerako Zerbitzuarekin harremanetan jarri besterik ez duzu.

Ekintza horietako batzuen helburua prestakuntza da, beste batzuen gaikuntza, esperimentazioa eta ikerketa, era berean denak topaketarako eta harremanerako eremu gisa daude proposatuak, eta garatu beharreko balioak honako hauek izango lirateke: partekatzea, elkarlana eta akordioak bilatzea.

Errazago aukeratu ahal izan dezazun zein jardueratan gustatuko litzaizukeen parte hartzea, ondorengo eremu hauetan antolatu da egitarau hori:

- HEI EKITALDIAK
- HEI GIZARTE-GAITASUNAK
- HEI ELKARTEAK
- HEI EZAGUTU GASTEIZ
- HEI TXIKI VITAL (*berria*)
- HEI LAB (*berria*)

(Ikusi jardueren egutegia 4. eta 5. orrialdeetan)

NORK HAR DEZAKE PARTE ESKOLAN?

Jarduera gehienak, oro har, herritarrei zuzenduta daude, baina kolektibo desberdinei zuzendutako jarduerak ere topa ditzakezu bertan (haurrei, familiei, talde politikoei, teknikariei, gizarte kolektiboiei...).

NOLA HAR DAITEKE PARTE?

Oso modu eta maila desberdinetan, zure aukeren eta gogoen arabera; HEI eskola presentziala da, baita birtuala ere. Hitzaldiak zuzenean eskainiko dira interneten bidez eta gainerako jardueretan sortutako dokumentazioa herritarren esku egongo da www.vitoria-gasteiz.org/hei helbidean. Twitterren bidez ere egin dezakezu eskolaren jarraipena.

Sar zaitetz zure eskolan zatoz HEIra!

HEI Egitaraua 2018/19 ikasturtea

EGUNA
7

14

21

28

ELKARTEENTZAKO LANTEGIAK
Zure elkartearen kudeaketa-plana

14. or.

EGUNA
8

GIZARTE-GAITASUNEN IKASTAROEN AURKEZPENA HITZALDIA
Umorea eta emozioak

7. or.

EGUNA
9

ELKARTEENTZAKO LANTEGIAK
Gerturatu Kultura Libreria

14. or.

EGUNA
5

12

19

ELKARTEENTZAKO LANTEGIAK
Zure elkartearen kudeaketa-plana

14. or.

EGUNA
9

10

GIZARTE-GAITASUNETARAKO LANTEGIAK
Bilera eraginkorrak, moderatzen eta eztabaidatzen ikastea (gaztelaniaz)

11. or.

EGUNA
9

2018/19 IKASTURTEAREN IREKIERA INAUGURAZIO-HITZALDIA
Giza espeziea: espezie etikoa

7. or.

EGUNA
14

ELKARTEENTZAKO LANTEGIAK
Sistema Eragile Librea

14. or.

EGUNA
11

EZAGUTU GASTEIZ FORMAKUNTZA HITZALDIAK
Nork entzuten dit? Sindikoa eta Herritarren Partaidetza

18. or.

EGUNA
10

EZAGUTU GASTEIZ KULTUR HITZALDIAK
Gasteizko hiriarekin loturiko pertsonaia ospetsuak

19. or.

URRIA

EGUNA
16

EZAGUTU GASTEIZ FORMAKUNTZA HITZALDIAK
Zahartzearen, adinekoen eta adinekoentzako zentro soziokulturalen pertzepzioari buruzko azterlana

18. or.

EGUNA
25

EZAGUTU GASTEIZ KULTUR HITZALDIAK
Gasteizko historia

19. or.

EGUNA
31

ELKARTEENTZAKO LANTEGIAK
Zure elkartearen kudeaketa-plana

14. or.

AZAROA

EGUNA
16

ELKARTEENTZAKO LANTEGIAK
Intranet propioa eta librea: NextCloud

14. or.

EGUNA
21

ELKARTEENTZAKO LANTEGIAK
Diseinatzaile ez diren pertsonentzako diseinu-jarraitbideak

14. or.

EGUNA
22

EZAGUTU GASTEIZ KULTUR HITZALDIAK
Gasteizko jaiak eta tradizioak

19. or.

EGUNA
23

ELKARTEENTZAKO LANTEGIAK
Presentzia Sare Sozialetan

14. or.

EGUNA
30

ELKARTEENTZAKO LANTEGIAK
Elkarteentzako komunikazioa: Elkarreak.info eta beste plataforma batzuk

14. or.

ABENDUA

EGUNA
14

HEI LAB KAFE SOLASALDIA

24. or.

EGUNA
27

HEI Txiki Vital
BISITAK UDALETXERA
Ate irekien egunak

21. or.

URTARRILA

EGUNA
16

IKASGELA IREKIA HITZALDIA
Elkarte zaharrak gizarte berri batean?

8. or.

EGUNA
23

24

GIZARTE-GAITASUNETARAKO LANTEGIAK
Bilera eraginkorrak, moderatzen eta eztabaidatzen ikastea (euskaraz)

11. or.

EGUNA
31

GIZARTE-GAITASUNETARAKO LANTEGIAK
Umorea eta emozioak (gaztelaniaz)

12. or.

EGUNA 6	ELKARTEENTZAKO LANTEGIAK Zein komeni zaizu? Ezagutu Udalaren diru-laguntzak	15. or.	EGUNA 6	EZAGUTU GASTEIZ FORMAKUNTZA HITZALDIAK Zein zerga ordaintzen ditugu Gasteizen?	18. or.						
EGUNA 7	GIZARTE-GAITASUNETARAKO LANTEGIAK Umorea eta emozioak (gaztelaniaz)	12. or.	EGUNA 7	EZAGUTU GASTEIZ KULTUR HITZALDIAK Artea Gasteizen	19. or.						
EGUNA 8	HEI LAB KAFE SOLASALDIA	24. or.	EGUNA 12 --- 14	GIZARTE-GAITASUNETARAKO LANTEGIAK Sormena: irtenbide originalak (gaztelaniaz)	12. or.	EGUNA 2	ELKARTEENTZAKO HITZALDIAK Zure elkartearen eskubideak eta betebeharrak: Gardentasunari buruzko Legea eta informazio publikoa eskuratzeko bidea	15. or.			
EGUNA 13	ELKARTEENTZAKO LANTEGIAK Ikasi zure proiektua eta memoria egiten	15. or.	EGUNA 13	EZAGUTU GASTEIZ FORMAKUNTZA HITZALDIAK Zertan erabiltzen du Gasteizek udal-aurrekontua?	18. or.	EGUNA 5	HEI LAB KAFE SOLASALDIA	24. or.			
OTSAILA			MARTXOA			APIRILA			MAIATZA		
EGUNA 14	HERRITARREK PARTE HARTZEKO JARDUNALDIA HITZALDIAK ETA LANTEGIAK Sarean nola lan egin?	8. or.	EGUNA 21	HEI LAB HITZALDIA Zeintzuk dira Garapen Jasangarriaren Helburuak?	23. or.	EGUNA 9	EZAGUTU GASTEIZ BISITA UDALETXERA Ate irekien egunak	17. or.	EGUNA 13	HEI LAB DINAMIKA PARTE-HARTZAILEA Eta orain zer? 2019/20 ikasturterako proposamena	23. or.
EGUNA 21	GIZARTE-GAITASUNETARAKO LANTEGIAK Umorea eta emozioak (gaztelaniaz)	12. or.	EGUNA 27 --- 28	GIZARTE-GAITASUNETARAKO LANTEGIAK Entzute aktiboa eta enpatia (gaztelaniaz)	11. or.				EGUNA 16	2018/19 IKASTURTEAREN AMAIERA ANTZEZLANA Zer da auzoko antzerkia? "Espainiar kapitalista gazte baten autoerreturata"	9. or.
EGUNA 26 --- 28	GIZARTE-GAITASUNETARAKO LANTEGIAK Entzute aktiboa eta enpatia (gaztelaniaz)	11. or.	EGUNA 26	ELKARTEENTZAKO HITZALDIAK Datuak babesteari buruzko legea. Badakizu zure elkarte egunean dagoen? (azken berritasunak)	15. or.						

Eskarripeko jarduerak	EZAGUTU GASTEIZ HITZORDUA... 17. or.	HEI TXIKI Vital HITZORDUA... 21. or.	HEI TXIKI Vital GIZARTE-GAITASUNETARAKO LANTEGIAK Elkarrekin lan egiten ikasteko lantegia 21. or.
-----------------------	--	---	---

Algunes pistas

- Fomentar metodoloxías que maie identifiquen
- Aproximación ao desenvolvemento sustentable
- Conectar coas prácticas existentes
- Fomentar prácticas existentes e desenvolvemento
- Fomentar prácticas existentes e desenvolvemento
- Aproximación á realidade do alumnado

HEI EKITALDIAK

Ikasturte honetako egitarauaren barruan hitzaldiak, mahai-inguruak eta herritarrek parte hartzeko jardunaldiak izango ditugu. Horietan, herritarren parte-hartzearen inguruko gai interesgarriak jorratuko ditugu, hala nola etika eta bizikidetzeta, gizarte-hedabideen eragina, gizarte-harremanetan jokabideak duen garrantzia eta partaidetzaren alorrean izandako berrikuntza.

2018/19 IKASTURTEAREN IREKIERA

INAUGURAZIO-HITZALDIA. Giza espeziea: espezie etikoa

Eguna:

- **Urriak 9.** 19:00-21:00.

Lekua: Europa Biltzar Jauregia. Francisco de Vitoria Auditorioa. Gonbidapen bidezko sarrerak. Urriaren 2tik aurrera jaso daitezke Gizarte Etxeetan.

• ESKOLAREN AURKEZPENA, 2018/19 IKASTURTEA

• INAUGURAZIO-HITZALDIA

Giza espeziea: espezie etikoa

Hizlaria: *Javier Urrea*

Hizkuntza eta irudimena dugu, eta horri esker, pertsona onak izateaz gain eta arauak betetzeaz gain, bakardadean ere pertsona etikoak izateko aukera dugu. Geure buruak eta gainerakoak etikan hezi behar ditugu, eta orain are arrazoi gehiagorekin, izan ere, antza denez, bezerotzat hartzen baikaituzte toki guztietan, herritartasuna galdurik.



Javier Urrea

Psikologian eta Osasunaren Zientzietan doktore, Espainiako Psikologia Akademiako zenbakidun akademikoa, Auzitegiko Psikologo Forensea Justiziako Auzitegi Goreneko Fiskaltzan eta Madrilgo Adingabeen Epaitegietan (borondatezko eszedentzian) eta gatazkan dauden guraso eta seme-alabeentzako recURRA-GINSO programaren Batzorde Zuzentzailearen Presidentea.

GIZARTE-GAITASUNEN IKASTAROEN AURKEZPENA

HITZALDIA. Umorea eta emozioak

Eguna:

- **Azaroak 8.** 19:00-21:00.

Lekua: Goiuri Jauregia. Martin de Salinas Aretoa. Gonbidapen bidezko sarrerak. Azaroaren 2tik aurrera jaso daitezke Gizarte Etxeetan.

• HITZALDIA

Umorea eta emozioak

Hizlaria: *Virginia Imaz Quijera*

Umorearen sena geure aldarbarean (aurretiazko) jarrera bat da, eta sendagarria eta indarberritzailea izan daiteke guretzat. Eguneroko presio eta itxaropenek eragindako zama arintzeko ezinbesteko modua da. Umorearen senak gauzak erlatibizatzen laguntzen digu, argitasunez ikusteko aukera ematen baitigu, zein gutxi dakigun eta perfekziorik oraindik zein urrun gauden onartuz. Emozioen berreziketa-esparru batean, umorearen sena erresilientzia-estrategia bat da batetik, baina baita norbera ahalduntzeko erreminta paregabea ere.



Virginia Imaz Quijera

Pailazo profesionala da, eta Oihulari Klown antzerki-taldearen fundatzaileetako bat. Gaur egun, clown, antzerkigintza eta kontu-kontalaritzako ikastaroak eskaintzen ditu, eta ezagunak dira bere 'clownklusioak'. 2017an Emakundek Berdintasunaren Emakunde saria eman zion bere ibilbide eta kontzientzia feministagatik.

IKASGELA IREKIA

HITZALDIAK.

Elkarte zaharrak gizarte berri batean?

Eguna:

- **Urtarrilak 16.** 19:00-20:30.

Lekua: Goiuri Jauregia. Martin de Salinas Aretoa.

Gonbidapen bidezko sarrerak. Urtarrilaren 8tik aurrera jaso daitezke Gizarte Etxeetan.

Elkarte baten sorrera, oro har, herritarrek hautemandako premia baten ondorio izaten da, eta horrek, halaber, esku-hartze proiektu bat eragiten du. Proiektu hori eguneratua ez badago, gauzak beti horrela egin izan ditugulako egiten baditugu, baliteke gure aldaketarako gaitasunak bere balio osoa galtzea, eta gure elkarteak ere bai.

Lan-saio honetan azpimarratuko dugu zein garrantzitsua den gure eguneroko lanean gidatuko gaituen proiektu bat edukitzea eta proiektu horrek unean uneko premietara egokitzeko gaitasuna edukitzea.

Baina... badugu proiekturik?

• HITZALDIA

Elkarte zaharrak gizarte berri batean?

Hizlaria: *Oscar Rebollo*



Oscar Rebollo

Soziologiako irakaslea da Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan, eta ikerlaria Gobernu eta Politika Publikoen Institutuan (IGOP). Zenbait udal gobernuren aholkulari izan da (Bartzelona, Girona, L'Hospitalet, Donostia, Rubí, Sabadell, Terrassa eta beste batzuk), eta hiri-eraldaketarako proiektuen koordinatzaile.

HERRITARREK PARTE HARTZEKO JARDUNALDIA

HITZALDIAK ETA TAILERRAK.

Sarean nola lan egin?

Eguna:

- **Otsailak 14.** 10:00-19:00.

Lekua: Goiuri Jauregia. Martin de Salinas Aretoa.

Sarrera doan, aurrez izena emanaz gero, edukiera bete arte.

• GOIZEZ 10:00-14:00: HITZALDIAK

Esperientziak sareetan

Aukera izango dugu herritarrek enpresek eta elkarteek sortu-tako hainbat sare kolaboratibo ezagutzeko eta haien inguruan hausnartzeko:

- **RIA** (*Red de Infancia y Adolescencia*)
- **ZAS** (*Red Vasca Antirumores*)
- **NESI Euskadi** (*Red de nuevas economías*)
- **Kaleidos.red** (*Red de ayuntamientos*)
- **¡La Colmena Que Dice Sí!** (*Red de consumo local*)

• ARRATSALDEZ 16:00-19:00: TAILERRA

Esperientziak sareetan

Goizean azaldutako esperientziak abiapuntutzat hartuta, udal administrazioetan sarean nola lan egin erakatsiko diguten ideiak eta aukerak proposatuko ditugu dinamika parte-hartzaile baten bidez.

2018/19 IKASTURTEAREN AMAIERA

ANTZEZLANA.

Zer da auzoko antzerkia? "Espainiar kapitalista gazte baten autoerreturua"

Eguna:

- **Maiatzak 16.** 18:30-20:30.

Lekua: Europa Biltzar Jauregia.

Gonbidapen bidezko sarrerak. Maiatzaren 8tik aurrera jaso daitezke Gizarte Etxeetan.

Oso modu berezian eman nahi diogu amaiera 2018/19 ikasturteari. Auzoko Antzerkiarekin elkarlanean, herritarrek parte hartze-ko ardatz modura hurbilduko dugu kultura.

• 2018/19 IKASTURTEAREN LABURPENA

• ANTZEZLANA

"Espainiar kapitalista gazte baten autoerreturua"

Alberto San Juan, Animalario konpainiaren kide fundatzaileetako bat, bakarka aurkeztuko zaigu "Espainiar kapitalista gazte baten autoerreturua" izeneko lanarekin, eta gure egunerokotasunari eta gure historiari buruz duen ikuspegi beti kritikoa erakutsiko digu umore giroan.

"Kapitalista naiz. Elikagaiekin espekulatzen duen banku batean dut kontua. Medikuntza-aseguru pribatua dut. Bere bezeroei la-purtzen dien enpresa batekin kontratatua dut argindarra, haren helburua etekin handiena ateratzea delako. Lanean, lortu dezakedan soldatarik handiena kobratzen dut, nire lankideen soldat-ak eta gainerako lan-baldintzak zein diren kezkatu gabe..."

Egilea, zuzendaria eta interpretea:

Alberto San Juan

• SOLASALDIA

Zer da auzoko antzerkia?

Proiektu honek antzerkiak gizartea eraldatzeko duen gaitasuna aintzat hartzen du eta herritarrei XXI. mendeko aldaketa kultural eta politikoetan parte hartzeko aukera ematen die. Ekonomia eredu berri honek herritarrak produkzio moduen jabe eta kudeatzaile izatea proposatzen du. Madrilgo Triangulo aretoan kokatua dago. M15 mugimenduko magalean sortu zen espazio irekien eta asanblearioen beharrei erantzuna emateko. Antolake-ta eredia irabazi-asmorik gabeko kontsumo kooperatiba batena da. Zuzendaritza batzordeak, bazkide sortzaileek eta bazkide kooperatibistek osatzen dute kooperatiba. Hiru lan ildo jorratzen ditu: programazio kultural egonkorra, kontsumo arduratsuaren plataforma eta Auzoko Unibertsitatea. Pentsamenduak, politikak eta umoreak espazioa izan dezaten jaito da proiektua.





HEI GIZARTE-GAITASUNAK

Ikasturte honetan, gizartean harremanetan jartzen eta bizitzen laguntzen diguten gizarte-gaitasunetan sakontzen jarraituko dugu. Gaitasun horien artean, entzute aktiboa, enpatia, elkarrizketa, eta deliberamendua, besteak beste.

HEI GIZARTE-GAITASUNAK

LANTEGIA.

Bilera eraginkorrak, moderatzen eta eztabaidatzen ikastea

Egunak:

- **Urtarrilak 9 eta 10.** 10:30-14:30 (gaztelaniaz).
- **Urtarrilak 23 eta 24.** 10:30-14:30 (euskaraz).

(8 ordu, 4 ordutako 2 saio)

Lekua: Landatxo Gizarte Etxea.

Nori zuzendua: udal teknikariei, ordezkari politikoei eta herritarrei.

Sarrera doakoa izango da aurrez izena emanez gero (leku-kopurua: 25)

• LANTEGIA

Bilera eraginkorrak, moderatzen eta eztabaidatzen ikastea

Ikaskuntza partekatuko lantegi bat izango da eta, bertan, parte-hartzaileek eginkizun aktiboa bereganatuko dute beren sailetako bilerak dinamizatzeko eta errazteko orduan aurkitzen dituzten zailtasunei aurre egiteko: ordezkari gisa duten eginkizuna, bilera eraginkorrak izateko partaidetza, erabilera eta tresna eta teknika egokiak erabiltzen direla sustatzea (deialdia, agenda, bileraren protokoloa...) eta konpromisoa kudeatzea.

Parte-hartze eta rol play metodologiak erabiliko dira bilerak dinamizatzeko gaitasun eraginkorrak garatzeko.

HEI GIZARTE-GAITASUNAK

LANTEGIA.

Entzute aktiboa eta enpatia

Egunak:

- **Otsailak 26 eta 28.** 15:30-19:30 (gaztelaniaz).
- **Martxoak 27 eta 28.** 10:30-14:30 (gaztelaniaz).

(8 ordu, 4 ordutako 2 saio)

Lekua: Landatxo Gizarte Etxea.

Nori zuzendua: udal teknikariei, ordezkari politikoei eta herritarrei.

Sarrera doakoa izango da aurrez izena emanez gero (leku-kopurua: 25)

• LANTEGIA

Entzute aktiboa eta enpatia

Hausnarketarako eta praktika indibidualerako jarduerak egingo dira pertsona bakoitzak entzuteko norbere mugak ezagutu ditzan. Taldekako ariketak eta dinamikak egingo dira entzute aktiboaren gako eraginkorrak joratzeko, baita rol play eta bizipen-jarduerak ere, entzutearen eta enpatiaren dimentsio emozionala lantzeko.

Lantegian erabiliko den metodologiak entzuten ikastea du helburu, baina baita ikasitakoa parte-hartzaileen benetako egoerara eramatea eta horietan aplikatzea ere.



HEI GIZARTE-GAITASUNAK

LANTEGIA.

Sormena: irtenbide originalak

Egunak:

- **Martxoak 12 eta 14.** 15:30-19:30 (gaztelaniaz).

(8 ordu, 4 ordutako 2 saio)

Lekua: Landatxo Gizarte Etxea.

Nori zuzendua: udal teknikariei, ordezkari politikoei eta herritarrei.

Sarrera doakoa izango da aurrez izena emanez gero (leku-kopurua: 25)

• LANTEGIA

Sormena: irtenbide originalak

Gaur egun, arazoak konpontzeko prozesuak ulertzen diren moduan, egoera bat hobetzeko edo eraldatzeko asmoa duten prozesuak dira. Horretarako, beharrezkoa da ideia sortzaileak edukitzea, ideia horiek hautatu, probatu eta ezartzea, sormenetik abiatuta, eta zehazkiago, pentsamendu sortzailea garatuz, horretarako kompetentziarik egokienetako bat baita.

Berrikuntza-prozesuak, lantegiaren barruan, ideiak garatu ahal izateko modelo progresibo gisa ulertzen dira, eta horien barruan funtsezkoak dira bai sormena eta bai pentsamendu sortzailearen garapena ere.



HEI GIZARTE-GAITASUNAK

LANTEGIA.

Umorea eta emozioak

Egunak:

- **Urtarrilak 31.** 16:00-19:00 (gaztelaniaz).

• **Otsailak 7.** 10:30-14:30 (gaztelaniaz).

• **Otsailak 21.** 10:30-14:30 (gaztelaniaz).

Lekua: Landatxo Gizarte Etxea.

Nori zuzendua: udal teknikariei, ordezkari politikoei eta herritarrei.

Sarrera doakoa izango da aurrez izena emanez gero (leku-kopurua: 40)

• LANTEGIA

Umorea eta emozioak

Tailer hau berreziketa emozionalerako proposamen baten barruan kokatzen da. Barrearen rolari buruz eta umorearen senari buruz hausnarketa egiteko aukera bat da, betiere emozio biologikoen eta emozio kulturalen unibertsoaren barruan. Adierazpen eta komunikazio ariketen bitartez, poza eta barrea modu naturalago batean irten daitezela lortu nahi dugu. Umorearen sena lantzeko gonbidapen bat da. Barrearen eta komediaren bitartez nor bere baitan ongi sentitzeko modua bilatzeko.

Zergatik egiten dugu barre? Pertsona guztiok gauza beragatik egiten dugu barre? Nola egiten da barre gorputz guztiarekin? Umoreak gure osasunean eta gure harremanen kudeaketan duen eragina bereziki azpimarratuz galdera horietako batzuei erantzuten ahalegintzea da asmoa.



HEI ELKARTEAK

Gure erkidegoak gizarte-ehun aktiboa eta anitza du, herritarren ekimen askeari esker, eta horrek pertsonen jarduera aktiboa eta parte-hartze soziala eragiten eta errazten ditu. Programatutako jarduerak horien premiei eta interesei erantzutea dute helburu: legeria arloko berritasunetan, komunikaziora aplikatutako teknologia informatikoetan, proiektuak eta memoriak kudeatzeko eta egiteko tresnetan eta abarretan. Ekintza-ildo honetan gaineratutako jarduerak hirugarren sektore sozialeko elkarteei bideratuta daude. Hori guztia erakundeen eta udal teknikarien laguntzarekin.

HEI ELKARTEAK

LANTEGIAK.

Etorkizunera begira.
Zure elkartearen kudeaketa-plana

SECOT-ARABA erakundearekin elkarlanean, kudeaketa egoki bat aplikatzeko xedea duten 4 heziketa-tailer izango ditu modulu honak, eta bertan, egungo egoera identifikatu eta etorkizunari begira lan-plan bat garatuko da. Bertarazten diren guztien lana eta parte-hartzea izango dira metodologiaren oinarriak, betiere orientatzaile batek koordinatuta.

Garapena:

Lau lantegi planteatzen dira, bat kudeaketa-eremu bakoitzeko:

- **Antolakuntza eta Lege Esparrua**

Egunak: urriak 31 eta azaroak 7. 18:30-20:00.

- **Antolakuntza eta Kudeaketaren Kontrola**

Egunak: azaroak 14 eta 21. 18:30-20:00.

- **Kudeaketa Ekonomikoa eta Finantzariora**

Egunak: azaroak 28 eta abenduak 5. 18:30-20:00.

- **Komunikazioa eta Marketina**

Egunak: abenduak 12 eta 19. 18:30-20:00.

Lekua: Simone de Beauvoir Elkarten Etxea, 3. solairua.
San Ignacio Loiolakoaren kalea, 8.

Sarrera doakoa izango da aurrez izena emanez gero (leku-kopurua: 10)

Laguntzailea: SECOT Araba, Seniors Españoles para la Cooperación Técnica.

Baldintza: moduluak barne hartzen dituen lau saiotan parte hartu behar da.

Joan den ikasturtean edo honen amaieran modulua osatu duten elkarteek beren elkartearen tutorizazio pertsonalizatua eskatu ahal izango dute kudeaketa-plana ezarri ahal izateko.

HEI ELKARTEAK

LANTEGIAK.

Nola hobetu zure elkarteko komunikazioa

Saregune proiektuarekin lankidetzan, 6 tailer proposatuko dira eguneroko lanean software askea nola erabil daitekeen ezagutzeko.

- **Gerturatu Kultura Librera**

Ezagutu zer eta nola erabil dezakezun software librea.

Eguna: azaroak 9. 9:30-11:30.

- **Sistema Eragile Librea**

Gerturatu Ubuntura eta kendu beldurra Software Libreari.

Eguna: azaroak 14. 9:30-11:30.

- **Intranet propioa eta librea: NextCloud**

Ezagutu zure erakundearen barne-kudeaketarako tresna libre hau.

Eguna: azaroak 16. 9:30-11:30.

- **Diseinatzaile ez diren pertsonentzako diseinu-jarraitbideak**

Ikasi oinarriko diseinu-elementuak zure egunerokotasunean defendatzeko.

Eguna: azaroak 21. 9:30-11:30.

- **Presentzia Sare Sozialetan**

Sare sozial nagusietara gerturatzea. Zein egokitzen da gehien zure premietara? Twitter, Facebook, Blog,...

Eguna: azaroak 23. 9:30-11:30.

- **Elkarteentzako komunikazioa: Elkarteak.info eta beste plataforma batzuk**

Gure jarduerarako ohikoak ez diren beste informazio- eta zabalkunde-kanal batzuk badaude. Ezagutzen dituzu?

Eguna: azaroak 30. 9:30-11:30.

Lekua: Saregune. Santa Maria kantoia, 4.
Sarrera doakoa izango da aurrez izena emanez gero (leku-kopurua: 12)

Laguntzailea: Saregune. Sartu Álava.

HEI ELKARTEAK

LANTEGIAK.

Diru-laguntzak eta proiektuak

Udalak elkarteei bideratutako diru-laguntzen eta laguntzen hainbat deialdi egiten ditu. Prestakuntza honek Udalaren diru-laguntza lerroen kontzeptuzko esparrua ezagutaraztea du helburu, baita proiektuak eta memoriak prestatzeko aholkuak ematea ere.

Lantegi horietan zure elkarterako proiektuak nola garatu eta zer nolako diru-laguntzak jaso ditzakezun ikasteko aukera izango duzu.

Lekua: Simone de Beauvoir Elkartean Etxea, 3. solairua.
San Ignacio Loiolakoaren kalea, 8.

Sarrera doakoa izango da aurrez izena emanez gero (leku-kopurua: 14)

• Zein komeni zaizu? Ezagutu Udalaren diru-laguntzak

Diru-laguntzak zer diren, horien oinarri orokorrak eta zehatzak, eta diru-laguntza lerroak jorratuko dira, besteak beste. Deialdien xedea, baldintzak eta epeak. Justifikazioak eta memoriak.

Eguna: otsailak 6. 17:00-19:00.

Hizlaria: *Mariló Movilla*. Partaidetza eta Gizarte Etxeen Sai-leko Administrazio Kudeaketako teknikari juridiko arduraduna.

• Ikasi zure proiektua eta memoria egiten

Proiektu bat egiten ikasiko dute, modu praktikoan.

Eguna: otsailak 13. 17:00-19:00.

Hizlaria: *Lourdes Gil*. Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuko teknikaria.

HEI ELKARTEAK

HITZALDIAK.

Nola eragiten dute legegintzako berritasunek zure elkartean

Lege-esparruak eskaintzen ditu gizarte-elkarteen jarduketarako oinarriak. Hitzaldi-ziklo honen bidez, legegintzako berritasunak jakinarazi eta horiek ezagutarazi nahi ditugu, horiek modu irisgarrian eta ulergarrian bete daitezzen. Gasteizko Udalaren sailekin lan egin ostean, hainbat hitzaldi orientagarri planteatu dira hiru-garren sektoreak argi eta garbi jakin dezan lege batzuek beren elkartearen egunerokotasunean nola eragiten duten.

Lekua: Simone de Beauvoir Elkartean Etxea, 2. solairua.
San Ignacio Loiolakoaren kalea, 8.

Sarrera doakoa izango da aurrez izena emanez gero (leku-kopurua: 40)

• Datuak babesteari buruzko legea. Badakizu zure elkarte egunean dagoen? (azken berritasunak)

15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzkoa. Ikasi nola bermatu datu pertsonalen babesa. Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra, 2018ko maiatzaren 25etik aurrera aplikatzekoa.

Eguna: martxoak 26. 17:00-19:00.

Hizlaria: *Ana Novoa*. Gasteizko Udaleko Datuen Segurtasunerako arduradun teknikoa.

• Zure elkartearen eskubideak eta betebeharrak: Gardentasunari buruzko Legea eta informazio publikoa eskuratzeko bidea

19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa. Ezagutu erakunde publikoen eta diru-laguntzak eta laguntza publikoak jasotzen dituzten elkarten eta fundazioen betebeharrak.

Eguna: apirilak 2. 17:00-19:00.

Hizlaria: *Ana Vallejo*. Gasteizko Udaleko Gardentasunaren eta Edukien Ataleko arduradun teknikoa.



HEI EZAGUTU GASTEIZ

Ekintza-ildo honetan gaineratzen diren jarduerak Udala herritarrengana gerturatzea dute helburu, horiek honako alderdi hauek ezagutu ditzaten: udal- eta administrazio antolakuntza, zerbitzuak eta eskumenak, bideak eta herritarrek parte hartze-ko organoak, eta herritarrentzat interesgarriak izan daitezkeen Udalari lotutako alderdi guztiak.

HEI EZAGUTU GASTEIZ

BISITA UDALETXERA. Ate irekien egunak

Udaletxean bisita bat antolatuz, barnetik ezagutuko dugu Udal-
la: haren udal antolakuntza (alkatea, udalbatza, tokiko gobernu-
batzarra, alderdi politikoak), eta administrazioaren antolakuntza
(sailak, zerbitzuak, atalak, erakunde autonomoak). Herritarrek
parte hartzeko dauzkaten bideak eta arloak, ezagutuko ditugu
eta horiek Udalaren kudeaketan eta erabakietan duten eragi-
na hala nola gure udalerrriaren eraikuntzan modu aktiboan nola
parte hartu.

• BISITA UDALETXERA

Eguna:

- **Apirilak 9.** 12:00-13:00 (gaztelaniaz).
18:00-19:00 (euskaraz).

Lekua: Udaletxea.

Nori zuzendua: herritarrei.

Sarrera doakoa izango da aurrez izena emanaz gero (leku-kopurua: 40)



HEI EZAGUTU GASTEIZ

HITZORDUA...

Jarduera honi esker lehen eskutik ezagutu ahal izango dituzu
Udal Sailen zereginak. Aukeratu ezazu gaia eta esparruan ar-
dura duen udal teknikari batekin harremanetan jarriko zaitugu.

Aukeratzeko gai ugari daude, baina hala eta guztiz ere intere-
satzen zaizuna aurkitzen ez baduzu, jakinarazi diezaguzu.

Gaiak:

- Eraztun Berdea eta Hiri-
parkeak
- Herritarrentzako Laguntza
eta Gardentasuna
- Bizikidetzeta eta Aniztasuna
- Garapenerako Lankidetzeta
- Kultura
- Kirola
- Hezkuntza
- Enplegua eta Prestakuntza
- Enpresak, Ekintzaitzeta eta
Merkataritza
- Nekazaritzako elikagaien
estrategia
- Euskara
- Berdintasuna
- Zergak, tasak eta
ordenantza fiskalak
- Haurtzarora eta Familia
- Gazteria
- Hiri-ingurumena
- Mugikortasuna eta espazio
publikoa
- Herritarren Partaidetzeta
- Adinekoak
- Udaltzaingoa
- Protokoloa eta
Komunikazioa
- Osasuna eta Kontsumoak
- Sindiko (herritarren
defendatzailea)
- Hirigintza

HEI EZAGUTU GASTEIZ

FORMAKUNTZA HITZALDIAK.

Udal eskumeneko gaiak jorratuko dira (ordenantza fiskalak, udal-
aurrekontuak...), modu ulergarrian eta atseginean.

Ikasturtean zehar, herritarren nahiz udal-sailen eta -zerbitzuen in-
teresei erantzuten dieten hitzaldi berriak gehitu ahal izango dira.

• Zahartzearen, adinekoen eta adinekoentzako zentro soziokulturalen pertzepzioari buruzko azterlana

Herritarrek zahartzeari buruz, adineko pertsonen buruz eta adine-
koen zentro soziokulturelari buruz duten iritzia 2018.
urtean egindako azterlanaren emaitza da. Estereotipoek adineko
pertsonei jokatzen eta horiekiko harremanean zer eragin du-
ten aztertzen da.

Eguna: urriak 16. 18:00-19:30.

Lekua: Simone de Beauvoir Elkartearen Etxea, 2. solairua.
San Ignacio Loiolakoaren kalea, 8.

Nori zuzendua: herritarrei.
Sarrera doakoa izango da aurrez izena emanaz gero (leku-kopurua: 40)

Hizlaria: **Elena Prado Armas**, Gasteizko Udaleko adine-
koentzako Zerbitzuaren psikologoa eta **Maite Ruiz de Saban-
do Madina**, Gasteizko Udaleko Zentro eta programen burua.

• Nork entzuten dit? Sindikoa eta Herritarren Partaidetza

Eguna: abenduak 11. 18:30-20:30.

Lekua: Landatxo Gizarte Etxea.

Nori zuzendua: herritarrei.

Sarrera doakoa izango da aurrez izena emanaz gero (leku-kopurua: 40)

Hizlaria: **Leyre Zugazua Urturi**, Gasteizko Sindikoa eta
Ruth Oliva, Gasteizko Udaleko Herritarren Parte-hartzerako
Zerbitzuko teknikaria.

• Zein zerga ordaintzen ditugu Gasteizen?

Eguna: martxoak 6. 18:00-19:30.

Lekua: Simone de Beauvoir Elkartearen Etxea, 2. solairua.
San Ignacio Loiolakoaren kalea, 8.

Nori zuzendua: herritarrei.

Sarrera doakoa izango da aurrez izena emanaz gero (leku-kopurua: 40)

Hizlaria: **Carmen Escobar**. Zerga Kudeaketaren
Zerbitzuko burua.

• Zertan erabiltzen du Gasteizek udal-aurrekontua?

Eguna: martxoak 13. 18:00-19:30.

Lekua: Simone de Beauvoir Elkartearen Etxea, 2. solairua.
San Ignacio Loiolakoaren kalea, 8.

Nori zuzendua: herritarrei.

Sarrera doakoa izango da aurrez izena emanaz gero (leku-kopurua: 40)

Hizlaria: **Moisés Guridi**, Aurrekontuen Finantza
Kudeaketaren eta Diruzaintzaren Zerbitzuaren burua.

HEI EZAGUTU GASTEIZ KULTUR HITZALDIAK.

• Gasteizko historia

Eguna: urriak 25. 18:00-19:30.

Lekua: Landatxo Gizarte Etxea.

Nori zuzendua: herritarrei.

Sarrera doakoa izango da aurrez izena emanez gero (leku-kopurua: 30)

Non bizi ziren Gasteizko lehenengo biztanleak? Alde Zaharreko harresia errege beraren agindupean egin zuten oso-osorik? Zer gertatu zen hiri osoa ia kiskalita utzi zuen sutean? Zer harreman eduki zuen Gasteizko hiriak Errege-Erregina Katolikoekin? Zergatik daude gremio-kaleak Alde Zaharrean? Nola maitemindu zen Montehermosoko markesa Napoleonekin? Zenbateko garrantzia du Ajuria Eneak Gasteizen?

• Gasteizko jaiak eta tradizioak

Eguna: azaroak 22. 18:00-19:30.

Lekua: Landatxo Gizarte Etxea.

Nori zuzendua: herritarrei.

Sarrera doakoa izango da aurrez izena emanez gero (leku-kopurua: 30)

Nola sortu zen San Anton eguneko zozketa? Zer garrantzi du Gasteizko Inauteriak? Nola ospatzen da Arabako patrioiaren jaieguna hiriburuan? Zergatik dugu baratxuriaren ohitura Santiago egunean? Zer gertatu zitzaion Zeledoni jaisten ausartu zen lehen urtean? Noiztik ospatzen da Olarizuko jaiak? Zer aldatu du Olentzerok Gasteizko Eguberrietan?

• Gasteizko hiriarekin loturiko pertsonaia ospetsuak

Eguna: urtarrilak 10. 18:00-19:30.

Lekua: Landatxo Gizarte Etxea.

Nori zuzendua: herritarrei.

Sarrera doakoa izango da aurrez izena emanez gero (leku-kopurua: 30)

Zein kaletan jaio zen Mateo Moraza? Non hil zen Manuel Iradier? Zer harreman dago Heraclio Fournier eta karta-sortaren artean? Zergatik da ospetsu Loreto Arriola? Nola amaitu zen *Sacamantecas*? Non dago Nieves Cano? Zergatik geratu zen Gasteizen Zumalakarregiren emaztea? Zer egin zuen Gasteizen alde Micaela Portillak?

• Artea Gasteizen

Eguna: martxoak 7. 18:00-19:30.

Lekua: Landatxo Gizarte Etxea.

Nori zuzendua: herritarrei.

Sarrera doakoa izango da aurrez izena emanez gero (leku-kopurua: 30)

Zein da hiriko eraikin erromanikorik garrantzitsuenak? Zer aberatasun gordetzen dira Gasteizko gure elizetan? Zer ikus daitezke arma-museoan? Zein da arte-museoko obrarik garrantzitsuenak? Arte sakroaren museoan dagoen guztia Arabako Lurralde Historikoa da? Noiztik dago zabalik Artium arte modernoko museoa?

Hizlariak: *Juan Antonio Zárate* eta *Iñaki Jiménez*.

Laguntzailea: SECOT Araba, Seniors Españoles para la Cooperación Técnica.

HEI TXIKI Vital

Eskola hau joan den ikasturteko txikienei ireki izanak eduki zuen arrakasta ikusita, aurtén, Vital Fundazioaren laguntzari esker, zabaldu egin dugu gazteei zuzendutako heziketa-eskaintza.

FUNDACIÓN **Vital** FUNDAZIOA

HEI TXIKI VITAL

IKASTETXEEI BIDERATUTAKO LANTEGIA. Elkarrekin lan egiten ikasteko lantegia

Taldeen lankidetzakultura arrakastarako giltzarri da, eta halaber, haien sendotasunik handienetako bat. Honelako kultura baten garapena errazten duten elkarrekintzak bat-batekotasunez agertu ohi dira eskolaurrean dauden neska-mutilen artean. Egungo gizarte-sistemak, halere, jokabide indibidualistak eta lehiakorrek sustatzen ditu. Lankidetzakultura funtsezko elkarrekintzak eta gaitasunak erraztea eta berreskuratzea eta horiei balio handiagoa ematea da lantegi honen helburua.

• Elkarrekin lan egiten ikasteko lantegia

Lekua: Eskaera egin duen ikastetxea.

Hizkuntza: gaztelaniaz, euskaraz.

Iraupena: 4 ordukoa. 3 orduko saio bat ikasleekin eta ordu beteko saio bat irakasleekin.

Nori zuzendua: Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleei. Ikastaro hau "Vitoria-Gasteiz hezitzailea 2018/19" programaren barnean eskaintzen da.



HEI TXIKI VITAL

BISITAK UDALETXERA. Ate irekien egunak

Udaletxera familia-bisita bat eginez, Udala zer den ezagutuko dugu: udalaren antolamendua (Alkatea, Udal Batzarra, Udal Gobernu Batzordea eta talde politikoak), eta administrazioaren antolamendua (departamentuak, zerbitzuak, unitateak eta erakunde autonomoak).

Herritarrek parte hartzeko dituzten bideak eta eremuak jorratuko dira, eta herritarrek udalaren erabakietan eta kudeaketan duten eragina, eta halaber, gutako bakoitzak nola parte har dezakegun aktiboki gure udalerraren eraikuntzan.

• BISITA FAMILIARRA UDALETXERA

Eguna:

- **Abenduak 27.** 17:00-18:00 (euskaraz).
18:30-19:30 (gaztelaniaz).

Lekua: Udaletxea.

Nori zuzendua: familiei.

Sarrera doakoa izango da aurrez izena emanez gero (leku-kopurua: 40)

HEI TXIKI VITAL

HITZORDUA...

Ikastetxeen bitartez, txikienek lehen eskutik ezagutu ahal izango dute Udal Sail desberdinetan egiten den lana.



HEI LAB

Talde Eragileari egoki iruditu zaio HEI barruan sail bat sortzea, modu esperimental eta praktikoago batez herritarren parte-hartzea jasoko duena. Atal honetan parte-hartzeari buruzko elkarrizketak, hitzaldiak, liburutegi digital bat topa ditzakezu, 2019/20 ikasturtea eraiki ahal izango duzu..., eta sortzen den beste edozer.

HEI LAB

HITZALDIAK. Errealitate berriak

Eremu honen barruan, ikasturteak aurrera egin ahala, elkarrizketagai berriak sartu ahal izango dira, herritarrek dituzten interesak, nola udaleko Sail eta zerbitzuek dituztenak kontuan izanik.

• Zeintzuk dira Garapen Jasangarriaren Helburuak?

Eguna: martxoak 21. 18:00-20:00.

Lekua: Simone de Beauvoir Elkartearen Etxea, 2. solairua.
San Ignacio Loiolakoaren kalea, 8.

Nori zuzendua: Herritarrei.

Sarrera doakoa izango da aurrez izena emanez gero (leku-kopurua: 40)

Hizlaria: **Leyre Madariaga Gangoiti.** Kanpo Harremanetarako Idazkari Nagusia (Lehendakaritza).

• Ekonomia berriak partaidetza eredu gisa

Eguna: maiatzak 9. 18:00-19:30.

Lekua: Simone de Beauvoir Elkartearen Etxea, 2. solairua.
San Ignacio Loiolakoaren kalea, 8.

Nori zuzendua: Herritarrei.

Sarrera doakoa izango da aurrez izena emanez gero (leku-kopurua: 40)

Hizlaria: **Ivan del Caz.** Ongizate orokorraren aldeko estrategian eta brandingean aditua.

HEI LAB

DINAMIKA PARTE-HARTZAILEA. Eta orain zer? 2019/20 ikasturterako proposamena

Dinamika parte-hartzaile honetan, HEI nolakoa izatea nahi dugun eta 2018/2019 ikasturterako zein programa gustatuko litzaikekeen elkarrekin eraikitzea erabakitzeke aukera izango dugu. HEIn garrantzitsua zer den baloratuko dugu, baita 2018/19 ikasturtean landu beharko genituzkeen prestakuntza, jardunaldiak, dinamikak eta gaiak ere. Partekatzeke, elkarrekin lan egiteko eta hausnartzeko momentua izango da; HEI denon artean egiten dugu, eta zure ideiak eta ekarpenak ere oso garrantzitsuak dira berdintasunezko Gasteiz inklusibo eta jasangarri batekin konprometuta dagoen eskola hau garatzeko.

• Eta orain zer? 2019/20 ikasturterako proposamena

Eguna: maiatzak 13. 18:00-20:00.

Lekua: Simone de Beauvoir Elkartearen Etxea, 2. solairua.
San Ignacio Loiolakoaren kalea, 8.

Nori zuzendua: Herritarrei.

Sarrera doakoa izango da aurrez izena emanez gero (leku-kopurua: 40)



HEI LAB

HERRITARREN PARTE HARTZEA LIBURUTEGI DIGITALA

Liburutegi digitalaren helburua herritarren parte-hartzearen inguruan informazioa eta ezagutzak jasotzeko gune birtual bat izatea da, herritarren parte-hartzearekin loturik gauzatzen ari diren ekimen, jarduera, plan eta proiektuen inguruko agiriak, bideoak eta audioak topatu ahal izateko.

- www.vitoria-gasteiz.org/hei

HEI LAB

KAFE SOLASALDIA

Ekimenak, ezagutzak eta iritziak partekatzeko eta alderatzeko gune bat sortu nahi da modu esperimental batean, ondorengo gai hauen inguruan: iraunkortasuna, ororen ongia, partaidetza, bizikidetzak, heziketa, dibertsitatea,...

- Kafe solasaldia

Egunak:

- **Abenduak 14.** 18:00-19:30.
- **Otsailak 8.** 18:00-19:30.
- **Apirilak 5.** 18:00-19:30.

Lekua: Florida Zabaltegi Jatetxea (Florida Parkea).

Sarrera doakoa izango da (leku-kopurua: 25)

HEI LAB

ETENGABEKO PARTAIDETZA

HEIren jarduera guztietan, zure iritziak eta ekarpenak helarazi ahal izango dizkiguzu jarduera guztiak amaitzean banatzen ditugun ebaluazio-galdeketen bitartez. Era berean, edozein momentutan parte hartu ahal izango duzu, HEIren webgunean (www.vitoria-gasteiz.org/hei) dagoen inprimakia beteta.

HEI LAB

HARTU PARTE TALDE ERAGILEAN

Gasteizko Udaleko Herritarren Partaidetzarako Zerbitzuarekin batera, HEIren diseinuan eta ebaluazioan parte hartzen duen talde eragile bat dago. Animatu eta egin bat taldearekin 2019/20 ikasurtea diseinatzeko.



INFORMAZIOA ETA IZEN-EMATEA

IZENA EMATEKO BIDEAK:

- Internet **www.vitoria-gasteiz.org/hei**.
- **010** telefonora edo, udalerritik kanpo deituz gero, **945 16 11 00** zenbakira deituta.
- Aurrez aurre, **Herritarrentzako Laguntza Bulegoetan**.
- Twitter: **#HEleskola**

-
- *Jarduera guztiak doakoak dira.*
 - *Jardueretan izena emateko epea 2018ko urriaren 2an irekiko da. Lekuak izena eman den ordenaren arabera esleituko dira.*
 - *Izena eman baduzu, baina azkenean ezin baduzu jardueran parte hartu, jakinarazi iezaguzu hura hasi baino lehen, 945 16 16 87 telefono-zenbakira deituta edo heieskola@vitoria-gasteiz.org bidez. Baja emanez gero, beste pertsona batek bete ahal izango du zuk libre utzitako lekua.*
 - *Izen-emateen gutxieneko kopurura iristen ez diren jarduerak bertan behera gera daitezke.*
 - *Hainbat hitzaldi streaming bidez ikusgai izango dira.*
 - *Jarduera guztietan zaintza zerbitzua eta zeinu-hizkuntza interpretea eskuragarri. Jarduera hasi baino 5 egun lehenago gutxienez eskatu beharko da zerbitzua, heieskola@vitoria-gasteiz.org helbidean edo 945 16 16 87 telefonoan.*

Udaleko beste heziketa-esparru interesgarri batzuk:

- Jabetze Feministarako Eskola
- Elkarrekin Bizitzen ikasi
- Gasteizko Hiri Ekologiaren Gela
- Adinekoentzako Zentro Soziokulturalek prestatutako jarduerak eta ikastaroak
- Gizarte Etxeetako eta kirol-instalazioetako jarduera-egitaraua



Herritartasunerako Eskola Irekia

Argitaratzailea: Vitoria-Gasteizko Udala
Egilea: Herritarren Parte-hartzerako Zerbitzua
Diseinua: Bikonsulting
Inprimatzailea: Kehayke